



2012KO EKAINAREN 15EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko ekainaren hamabostean, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2012ko maiatzaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Alkateak adierazten du kanpoko igerilekuetan atzemandako akatsak konpontzeko egindako lanei zegozkien fakturak, urtarrila eta otsailekoak zirela kontutan izanda, 25 zbk.dun fakturen zerrenda osatu eta alkatetzaren ebazpen bidez onartu eta ordaindu egin direla. Orain Tokiko Gobernu Batzar honen aurrera ekartzen dira honek onarpen hori berretsi dezan. Faktura hauen guztizkoa 4.182,13 eurokoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, fakturen zerrenda honen onarpenera berretsea erabakitzen du.

Bestalde Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 21 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (72.821,55 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru-laguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 12-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu eta alokairu gastuetarako diru-laguntzatik baja ematea maiatzetik diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duelako.



Esku-hartze familiarra.-

- 10-15-01 zbk.dun esped.: esku-hartze familiarra 6 hilabetez luzatzea. Esku-hartze honen aurrekontua 2.898,12 €koa da.

Ifarra-Hegoa lankidetzaren programa.-

2012 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetzaren Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondorengo diru-laguntzak onartzea erabakitzen du:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Padres Paules. Parroquia San Vicente de Paul	Bethania etxea, bazter utzia den adineko jendeari ostaturia eskeintzea eta ematea Dominikar Errepublikan (Santo Domingo)	4.000,00 €
Herriak elkarlanean	Barnetegia eraikitzea Beninen	15.000,00 €
Felix Baltistan Fundazioa	Khande Berrirako Ubidea eraikitzea laborantza guneetara ura eramateko, Baltistan - Pakistan	2.616,00 €
Karitas	Mediku tratamendua behar duten eta baliabidearik ez duten emakumeentzako ostaturia (Benin)	6.000,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Gihara (Rwanda) eskolako eraberritze lanak (komunen eraikina, balioanitzeko gelaren eraberritzea eta liburutegi eraikinaren eraikuntza).	15.000,00 €
Tximelagua fisioterapia pediatrikoaren garapenerako eta lankidetzarako elkarteak	Urritasun fisikoa duten umeei zaintzaileei eta familiei laguntza	9.314,00 €

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa.-

Lazkaoko Beneditarren Artxibategia Fundazioari bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten jaoteko, 4.000 €ko ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

Lazkao Txiki Musika Eskolari, bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten jaoteko, 4.100 €ko ordaintzea proposatzen da. Orain



proposatzen den ordainketa honekin eta aurretik ordaindu zaizkion 8.200 €kin aurrekontuan aurrikusitako 12.300 €ak ordainduta geldituko lirateke.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Goierri Telebista.-

Goierri Telebistarekin, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2012 urteari dagokion 5.350 €ko lehen ordainketa egitea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Goierriko Hitzari dirulaguntza.-

Goierriko Hitzarekin, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2012ri dagokion 5.450 €ko lehen ordainketa egitea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

V.- INGURUGIROKO DIRULAGUNTZAK .-

Goierriko Goi Tentsio Linearen Aurkako Plataforma.-

Goierriko Goi Tentsioko Linearen aurkako kanpainan izandako gastuei aurre egiteko 50 €ko diru-laguntza emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, diru-laguntza onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

